ONDARROAKO BARRI-PAPERA

UDAL BARRIAK

III. Aroa • **2012ko uztaila** • 4. zenbakia • Ondarroako Udala • ISBN: BI-2572-2011

Futbol zelai berria aurrera doa

> Udan, zelai artifiziala ipiniko da; gero, instalazioak berrituko dira.



Udalak bedar artifizialdun futbol zelai berria egiteko proiektuarekin aurrera jarraitzen du. Proiektu osoa ez da fase bakar batean egingo, honek kostu handia daukalako. Proiektu osoaren aurrekontua 2 milioi eurotakoa da.

Lehen fasea abuztu eta irailean gauzatuko dela aurreikusten du udalak. Horretarako, 800.000 eurotako hasierako prezioaz esleituko da proiektua. Lehen fasean bedar artifiziala ipintzeko obra egingo da. Hurrengoko faseetan instalazioak (aldagelak, gradak) berrituko dira. Lehen faseko obren epeak aurreikusi bezala badoaz, urrian futbol zelaia erabilgarri egongo da berriro. Horrela, gaur eguneko Zaldupeko zelaiak ase ezin dituen Aurrerako ekipo guztien zein ikastetxeetako ekipoen beharrak hartuko ditu futbol zelai berriak.

Zelai berria 100x60m-koa izango da, eta erdi banatan futbol 7ko bi zelai izango ditu, gaztetxoen partiduetarako. Belar artifizialeko zelaiak talde guztien partidu eta entrenamenduak Ondarroan egin ahal izatea ekarriko du. Horrez gain, nesken ekipoak martxan hasteko aukera ere edukiko du. Datorren denboraldirako nesken bi talde aurreikusten baitira dagoeneko.

>>>

Berriatuko zelaia alokatzea garesti ateratzen zaio udalari

Guztiontzako zerbitzua

Futbol zelaiak dituen erabiltzaile kopuru altua izan da egitasmoa lehentasunez aurrera ateratzeko udalaren arrazoia, batez ere. Aurrerak duen zazpi ekipo, eskola kirolean aritzen diren hiru ikastetxeetako beste bederatzi ekipo eta herritarren aldetik egon daitezkeen eskaerak kontuan hartu behar direla uste du udalak. Orain arte, Berriatuko futbol zelaira bideratu dira eskola kirola eta baita Aurrerak zuzenean kudeatzen dituen zenbait talderen entrenamenduak, Ondarroako zelaia ez izorratzeko. Horrek, kostu handia suposatu izan dio udalari, eta baita erabiltzaileei ere, alboko herriko zelaia alokatu behar izan dutelako. Bedar artifizialarekin, entrenamendu eta partida guztiak Ondarroan jokatuko dira.

>>>

Zelai artifizialarekin, entrenamenduak Zaldupen egin ahalko dira, eta ez da Berriatuko zelaia alokatu beharko

Belar artifizialaz gain, aldagelak ere berritu nahi ditu udalak. Aldi berean eskola kiroleko partidu bi jokatzen eta hurrengo biak prestatzen joan ahal izateko lain aldagela izango ditu instalazio berriak.

Hirigintza

Udalak alde zaharreko piboteak kentzea erabaki du

Zubi Barritik Kanttoipe errebueltara bitartean dauden piboteak kentzeko erabakia hartu du udalak, hainbat herritarrek izan dituzten istripuak ekiditeko. Herritarren istripuei eta kotxeekin izaten diren arazoei buruzko eztabaida iraunkorra egon da herritarren artean, eta baita udal agintarien artean ere. Eztabaida horretan, herritarren bizi kalitatea lehenetsi behar dela argi dauka udalak, baina kontuan hartu behar da kotxeekin sortzen diren arazoek beste bizilagun batzuei ere kalteak sortzen dizkietela, batez ere, ingurune horretako bizilagunei edo ingurune horretan komertzioak dituztenei.

Udalaren helburua bi arazo hauei erantzungo dion irtenbide integrala martxan jartzea da. Lehen urrats bezala piboteak kendu egin dira, eta udaltzaingoek jarraipen berezia egingo dute leku horretan, kotxeek aparkatu behar ez duten lekuan aparkatu ez dezaten. Bigarren fase batean, Nasa kaleko obrak amaitzen direnean, irisgarritasuna, karga-deskarga eta emergentziak bermatzeko plana abiarazteko asmoa dauka udalak.

Dena dela, udalak herritarrak ohartarazi nahi ditu denon konpromiso barik ezinezkoa dela eremuaren normalizazioa eta, batez ere, kotxe gidariak jabetu egin behar dira jarrera ez egokiek herritar guztiak kaltetzeaz gain, batez ere umeekin doazenak, ezinduak eta adinekoak kaltetzen dituztela.

>>> EUSKARA

Ondarroa, UEMAn!

> **LEIRE BEITIA eta IERA ARANTZAMENDI,**
Euskara zinegotzia eta Euskara lan taldeko kidea

«Udaleko lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea da gure helburuetako bat»

Ondarroa UEMAn (udalerri euskaldunen mankomunitatean) sartu da berriro, urte askoan kanpoan egon ostean. Erabaki honekin, Ondarroako Udalak herri euskaldunen sarea eta elkarlana indartu nahi ditu. Era berean, udalaren funtzionamendua euskaraz izan dadin ere bermatu nahi du. Erabaki hau ospatzeko, jaialdi bat ospatu zen Kafe Antzokian. Bertan, euskalgintzan lanean ibili diren eta dabiltzan herritarrak omendu zituen udalak.

Ondarroa UEMAn sartu da. Zer ekarriko dio horrek herriari?

Esan beharra dago 2000. urtean Ondarroako udala UEMAn sartu zela eta horren eraginez hainbat aurrerapauso emon ziren euskararen normalizazio bidean, bai herrian eta baita udalean bertan ere. Baina 2006an zuzenbidearen kontrako erabakia zela-eta epaitegiek UEMAtik kanpo utzi gintuzten. Geroztik, arazo hori konpontzeko UEMAko estatutuak aldatu badira ere, Ondarroako Udala ez da berriro UEMAko kide egin, borondate faltagatik.

Guretzat euskararen normalizazioa lehentasuneko gaia da eta bide horretan UEMA erankunde garrantzitsua dela uste dugu. Ondarroan euskera izan da eta da etxeetan jaso eta trasmitzen den berba; admistrazioan ere horrela izan behar dela uste dugu. Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatuan euskaraz izan dadin urratsak emango ditugu.

Beste proiektu batzuk ere martxan ipini dituzue: irakurle kluba, euskara ikastaroak...

Bai. Gure helburua esparru guztietan euskaraz bizi ahal izatea da. Horretarako herritarrak euskaldunak izan behar direla uste dugu, eta hori horrela izan dadin etorri berrientzat euskara ikastaroak antolatu ditugu. Irakurle kluba euskararen erabilera eta trasmisioarekin lotzen dugu, batipat euskaraz egindako literatur lanak bultzatzeko.

Kontziente gara oraindik gune asko erdaldunak direla, eta gu geu izan behar garela euskera eta Euskal Herriko kultura trasmititu behar ditugunak.

Osterantzean, zein helburu dauzka batzordeak datozen hilabeteetarako?

Esan bezala, gure helburua euskararen normalizazioa da, udaleko lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea. Bide horretan udaleko lanerako hizkuntz irizpideak finkatu ditugu, eta aurrerantzean euskararen ordenantzak aldatzea litzateke gure zeregina.

Bestetik urteetan eman ohi den Agustin Zubikarai saria gehiago herriratu nahian gabiltza, herri mailako beste lehiaketa bat antolatu asmoz ere bagabiltza, eta guztiak batuko dituen literatura astea antolatu nahi dugu. Abendurako herri hizkeraren inguruko jardunaldiak antolatzen ere bagabiltza.

2012ko ekainak 7, UEMA ekitaldia egin zen Kafe Antzokian. Argazkietan, Allarte taldea eta Kresala Elkarteko «Tradiziotik Kontenporaneoara» taldea. Behean, Ondarroan euskalgintzan beharrean diharduten lagunak.

Euskara eta alfabetatze ikastaroak egin dira ikasturtean zehar

Euskara eta aniztasun batzordeak antolatuta, ikasturtean zehar euskara eta alfabetatze ikastaroak egin dira. Euskara ikastaroei dagokienez, 27 pertsona aritu dira geure hizkuntza ikasten, gehienak etorkinak. Europakoak eta Europaz kanpokoak. AEKko irakasleen laguntza eduki dute horretarako. Bestetik, aniztasun batzordeak proposatuta, Institutuko 10 ikasle Senegaleko emakume batzuk alfabetatzen aritu dira, euren denbora librean, borondatez.

ELKARRIZKETA

> **AINARA ZENDOIA eta BINETA MBOW,**
Irakasle bolondresa eta ikaslea

Zenbat jende aritu zarete ikasten eta irakasten?

Ainara Zendoia. - 18 guztira. 8 ikasten eta 10 irakasten. Astean egun batean batu gara, eguenetan, eta ordu eta erdiko saioak egin ditugu.

Zein metodo erabili duzue?

A.Z. - Metodo berezi bat erabili dugu. Bakoitzarekin desberdin lan egin dugu, zeukaten jakintzaren arabera. Eguneroko gauzetatik hasi gara, eguneroko berbak eta ikasten. Guk paper batean idatzi, eta eurak kopiatu, eta abar. Alfabetoa, euskarazko berbak, gaztelerazkoak… ikasi dituzte.

Bineta Mbow. - Euskara ikasi dugu, gaztelera… eta ordenadora erabiltzen ere bai!

Errazak izan dira klaseak, ala gatxak?

B.M.- Aurretik ikasita zegoen jendearentzako errazak; aurretik ezer ikasi ez dutenentzako, zailagoak.

Datorren kurtsoan jarraitzeko asmorik badaukazue?

A.Z. - Bai, baina gu unibertsitatera goazenez, gu baino urte bat gazteagoek eman beharko dituzte ikastaroak.

B.M.- Guk jarraitu nahi dugu. Ea egun baten ordez, bi edo hiru egunetan edukitzen ditugun klaseak.

AURREKONTUAK

Auzitegi Gorenak atzera bota du EAJ-PNVk aurrekontuak eteteko egindako eskaria

> Ondarroako EAJ-PNVk 2012ko udal aurrekontuen kontra salaketa ipini zuen

>>Epaia eman bitartean behin behineko etena eskatu zuten jeltzaleek

>>>EAEko Auzitegi Gorenak errekurtsoa desestimatu du, eta kontrako errekurtsorik ezingo da ipini

2011ko azaroan Ondarroako Udalak 2012ko aurrekontuei hasierako onarpena eman zien. Ondarroako EAJ-PNVk aurrekontuei alegazioa jarri zien, Ibaiondoko aparkalekuen kontseziotik eratorriko diren diru sarrerei aurrekontuetan aurreikusitako erabilera dela eta. EAJ-PNVk agertzen zituen argudioak zuzenak ez zirela iritzita 2012ko urtarrilean Udalak aurrekontuak onartu zituen definitiboki, udaleko zein udalaz kanpoko zerbitzu juridiko-ekonomikoen irizpideetan oinarrituta, tartean Herri Kontuen Euskal Epaitegia (Tribunal Vasco de Cuentas Publicas). Orduan EAJk aurrekontuen kontrako auzia hasi zuen, eta aurrekontuen behin behineko etenaldia eskatu zuen. Apirilean, behin behineko etenaren lehen desestimazioa etorri zen Auzitegi Gorenaren aldetik, EAJ-PNVk aurkezten zituen argudioak aurrekontuak eteteko nahikoa ez zirela iritzita. Hala ere, EAJ-PNVk Auzitegi Gorenaren ebazpenari errekurtsoa jarri zion berriro maiatzean, 10/2003 foru arauen oinarrituz. Baina uztailean Auzitegi Gorena bere ebazpenean berretsi da, errekurtsoak jada ebatsiak ziren argudioez harago beste onarririk aurkezten ez zutelakoan. Horrela, Ondarroako Udalak hartutako erabakia babestu du auzitegiak, eta oraingoan errekurtsorako aukera ere baztetu egin du.

Udal Gobernuaren iritzia

Ebazpen honekin Udal Gobernua hasieratik defendatu dituen posizioetan berretsi da. Bere garaian azaldutako moduan, oposizioaren iritziak kontuan hartu eta kontrastatu baditu ere, inoizko momentuan ez du ikusi aurrekontuak zalantzan jartzeko oinarri sendorik. Aurrekontu horiek batzorde eta auzo batzarretan landu dira. Udal Gobernuaren ustez aproposagoa da EAJ-PNVk batzorde eta batzar horietan parte hartu eta bere ekarpenak egitea, zuzenean auzitegietara jo beharrean.

GARRAIOA • **BIZKAIBUSA**

Udalak Bizkaibus zerbitzua hobetzeko eskariak egin dizkio Aldundiari

Lea Artibai eskualdean mugikortasunaren arazoa bereziki larria da. Bere bizilekua den herritik kanpo lan egiten duen lanpostudunen kopurua %60 ingurukoa da.

Herrialdeko gainontzeko herriekin errepide egokirik ez izateak Lea-Artibai Bizkaitik aldendutako eskualdea bilakatu du. Eta are larriagoa dena, arazo honi ez zaio irtenbide egokirik bilatzen garraio publikoaren bidez.

Autobusa da garraio publikoan daukagun bitarteko bakarra, eta nahiz eta Lea-Artibaitik egunean 100 autobus inguru ibili eskualdetik Bilbora joan-etorrian, zerbitzua ez dago batere optimizatua. Autobus zerbitzua badago, eta beronen optimizazioa bilatu behar da, garraio publikoa sustatu nahi bada.

Bestetik, zerbitzu hau Bilbora bideratua dago batez ere. Bilbo gune nagusi bezala kokatzen du, eta linea erradialen bidez Bizkaiko hainbat puntuetara bideratzen du zerbitzua. Aldiz, herrialdean transbertsalitaterik ez dago, eta herrialdeko zein eskualdetako hainbat herrien artean komunikaziorik ez du bermatzen. Lea Artibai eskualdea horren adibide argia da.

Zerbitzua hobetzeko eskaerak

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaibusen zerbitzua eta beronen lineak berrikusi nahi ditu aurten. Hori aprobetxatuta, Ondarroako Udalak Bizkaibus zerbitzua hobetzeko eskaera hauek egin dizkio Aldundiari:

1. ONDARROA-BILBO ZUZENEKOAK

Ondarroatik Bilbora gaur egun ordu-erdiro dago zerbitzua, bi ibilbidetan banatua. Bi ibilbide horietatik ez dago batik zuzenean Bilbora doanik. Horrek, 68 km.ko ibilbidea egiteko, ordu eta erdi pasatxo behar izatea dakar. Zerbitzu hori aprobetxatuta, egunean joan-etorri zuzenekoak egitea proposatzen dugu. Ondarroa-Berriatua-Markina (Garai Matiena A-8ko pintxo berritik) Bilbo (Termibus).

Linea honen ezaugarria Bilbora ordubete baino gutxiagoan heltzea da. Horretarako hasierako hiru herrietan izango luke bakarrik geltokia.

2.- LEA-ARTIBAI-LEIOAKO UNIBERTSITATEA

Gaur egun ez dago Lea-Artibaitik Leioako Unibertsitatera zuzenean doan autobus zerbitzurik. 2011/12 ikasturtean 164 Lea-Artibaiko ikasle egon dira Leioan ikastean. Proposatzen duguna hauxe da: 06:45ean Ondarroa – EHU Leioa. 07:45ean Ondarroa – EHU Leioa. 13:45 Ondarroa- EHU Leioa 15:15ean EHU Leioa – Ondarroa. 20:15ean EHU - Ondarroa.

3. ONDARROA-LEKEITIO LOTURA

Ondarroa eta Lekeitio arteko lotura beharrezkoa dela deritzogu. Egun, bi herri horietako batetik bestera joateko Markinan transbordoa egin beharra dago. Biztanle kopuruari dagokionez eskualdeko bi herri nagusienak izanik, bi herriak lotuko dituen lineak jartzea proposatzen dugu. Horretarako goizeko 05:30etan hasiko litzatekeen Lekeitio-Oleta-Berriatua-Ondarroa linea ezartzea proposatzen dugu.

4. TARIFA BAKARRA ESKUALDEAN

Ondarroa eta Berriatutik Lea ibarrera loturarik ez egoteak autobus aldaketak egitea dakar. Trasbordoa zonalde bererako izan arren, erabiltzaileak tike bi atera behar ditu Lekeitiora joateko, eta gehiago beste herri baterako bada. Proposatzen duguna, zonalde berean egiten den ibilbiderako tarifa bakarra ezartzea da, eta urte osorako bonoak ateratzea.

HIRIGINTZA • **AZPIEGITURAK**

>>> Jolasteko leku berriak

Udalak umeentzako jolasteko leku berriak ipintzen dabil Itsas Aurren, Gorozikan eta Txomin Agirre ikastolak erabiltzen duen Ibaiondoko patioan. Era berean, Zaldupe ikastetxean eta Ibaiondoko plazan dauden jolasak ere konponduko ditu.

HIRIGINTZA • **KALEAK ETA AUZOAK**

>>> Kale ibilaldiak egin dira, kaleetako arazoak hobeto ezagutzeko

Maiatzaren 3 eta 16 bitartean kale ibilaldiak burutu zituzten udal ordezkari, teknikari eta herritarrek. Kale ibilaldiekin herritarrak udal funtzionamenduan jardutea eta, aldi berean, udal ordezkariak kaleetako arazoetaz hobeto jabetzea bilatu nahi izan da. Hamar eremutan banatuta egin dira ibilaldiak, eta jendearen parte hartzea oso jendetsua izan da kale batzuetan. Denera 137 lagunek hartu dute parte.

Orokorrean, herritarren aldetik oso ondo baloratu dira ibilaldiak, eta udalak ekimen honekin aurrera jarraitzeko asmoa dauka. Udalak herritarren aldetik jasotako kexa eta ekarpenei irtenbideak eskaintzeko konpromisoa hartu du. Eskatutako gauza batzuk eginda daude dagoeneko: adibidez, Txori Errekako argiteria berriztea

BARRIMOTZAK

KULTURA • GUZUR ETXEA

Lanak aurrera doaz auzolanean >>>

Guzur Etxeko arte sorkuntzarako gunea itxura hartzen doa. Bigarren solairua, adibidez, amaituta dago. Hormak margotu, egurrezko behegaina ipini eta ispiluak ezarri dituzte (goiko argazkian, behegainea ipintzen; beheko argazkian, dantzan ikasten ispiluen aurrean Uzuri Nieto irakaslearekin). Dena auzolanean egin da, dantzari eta antzerkilariekin batera. Orain, beste solairuak konpontzen eta egokitzen jarraituko dute.

KIROLA

«Ondarroako Kirolariak Historian zehar» beka sortu du udaleko kirol batzordeak

Ondarroak eta ondarrutarrek kirolarekin eduki duten harremana ezagutzea da bekaren helburua

Ondarroako Udalak, "Ondarroako Kirolariak historian zehar" deitutako beka abian jarri du, urteetan zehar egindako kirola goratzeko eta sustatzeko. Udalaren asmoa beka urtero ateratzea da. Egileek, urte horretarako aukeratua izan den herriko kirolari baten inguruko ikerketa lana egin beharko dute. Ekimen honekin, ondarrutarrok kirol arloan izandako ibilbide oparoa ezagutarazi nahi du udalak. Behin lanak eginda, hedapenerako bitarteko ezberdinak jarriko dira herrian.

Proiektuak aurkezteko **epea uztailaren 23 eta abuztuaren 3a bitartean** izango da Ondarroako Udal bulegoetan. Bekaren oinarriak Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean daude ikusgai.

Aurten, Dina Bilbao

Aurten, Kirol Batzordeak hala aukeratuta, DINA BILBAOk bere bizitzan zehar egindako ibilbidea jasoko duen ikerketa-bekarako deia egin da. Ikerketa esparruari dagokionez, Dina Bilbaoren bizitza eta bereziki kirol arloan izan zuen ibilbide luzearen ingurukoak jorratu behar dira.



Dina Bilbao

Dina Bilbao Barruetabeña Ondarroan jaio zen 1960ko abenduaren 31n. Kamiñazpin igaro zuen haurtzaroa. Ondarroarekin eta bereziki familia eta koadrilarekin inoiz etenik galdu gabe, 20 bat urte zituela abiatu zen Tolosara bizitzera. Laster bilatu zion bizitzari zentzua eta bizimodu berezi bezain ez ohikoan kirola, natura eta abentura uztartu zituen. Aintzindaria izan zen zenbait kiroletan, iraupeneko eskian, duatloian, udako zein neguko triatloietan, txirrindularitzan, piraguismoan… Helburu nagusitzat inoiz hartu ez bazuen ere, Euskal Herriko zein estatu mailako hainbat txapelketa irabazitakoa da. Ehun triatloi burutu zituen eta sei Iron Man.

1997. urteko ekainean desagertu zen Karibe itsasoko uretan, Iñigo Ross-ekin batera Grenadatik Antiguara bueltan zihoazela katamaran batean, ekaitz gogor baten ondorioz. Bi urte zeramatzan Antiguako irlan bizitzen eta 36 urte zituen ezbeharra gertatu zenean. Itsasontziaren zati batzuk bilatu bazituzten ere, beraien arrastorik ez zuten aurkitu. 1998tik, lehen Zapato Azuletik, Dinamartxa antolatzen da bere omenez.

HEZKUNTZA

> Gaztelekuko teilatua, konponduta

Udalak Gaztelekuko teilatua konpondu du, egoera txarrean zegoelako eta euri ura sartzen zelako eraikineko bigarren solairuan. Horretarako, tela asfaltikoko bi geruza ipini dituzte beharginek. Beraz, eraikinaren teilatua prest dago, iraletik aurrera gaztelekua eta emakumeen topalekua babesteko.

> Bizikletak aparkatzeko 5 leku gehiago

Udalak bizikletaren erabilpena bultzatu nahi du herri barruan eta horretarako bizikletentzako 5 aparkaleku gehiago ipini ditu leku hauetan: anbulatorioan, Zubi Zaharraren ondoan, Alamedan, Musika Plazan eta hondartzan. Kokapen gehienak auzo batzarretan proposatu ziren. Horretaz gain, lehendik zeuden aparkaleku batzuen kokapena egokitu du: kiroldegira eroan du aparkaleku bat, eta Iparkaleko igogailuaren aterpera beste bat. Liburutegi ondoan zegoen aparkalekua eraikinaren aurrean ipini du.

KIROLA

> Umeek multikirola egin dute uztaileko Udaldian

Kirol Batzordearen ekimenez, herriko hainbat ume multikirola egiten ibili dira uztaileko Udaldian. Bi tandatan, gazteek kirol desberdinak ezagutu eta praktikatu ahal izan dituzte, kiroldegiko monitoreen laguntzagaz. Ekimen honek, opor garaian familia eta lana uztartzen laguntzeaz gain, aukera eskaini die Ondarroako haurrei, kirola eta entretenimendua elkartuz, ariketa fisikoa egiteko. Batzordearen helburua da hemendik aurrera ere herritarren artean kirol desberdinak ezagutarazten jarraitzea, jendea kirola egitera animatzeko.

> Slackline, hondartzako kirol berria

Udalak slackline bat ipini du Arrigorriko hondartzako erabiltzaileen eskura. Joko honek arrakasta handia lortu du azken urteetan, erabiltzeko erraza delako: bi euskarriri soka zabal eta malgu bat lotzen zaizkie, eta jendea alde batetik bestera pasatu behar da, lurrera erori gabe. Ea zelan moldatzen garen!

INGURUMENA

> Liburutegian ere birziklatzeko aukera dago

Udaleko eraikinetan birziklatzea bultzatzeko ekimena aurrera doa. Maiatzetik, udal liburutegian ere birziklatzeko aukera dago. Bertako langileek, aspalditik berziklatzen bazuten ere, orain erabiltzaileek ere papera eta plastikoa berziklatzeko aukera edukiko dute, sarreran ipini diren ontzien bidez.

> Olioa berziklatzeko ontzi bat gehiago ipini da

Ondarroa eskualdean proportzioan etxeko olio gehien berziklatzen duen herria da, Lekeitiorekin batera. Horregatik, eta ohitura hau gehiago indartzeko asmoarekin, olioa jasotzen duen enpresak beste olio ontzi bat ipini du San Ignazio kalean, Itsas Eskola aurrean. Olioak ur asko kutsatzen du harritik behera botazen bada; berziklatzen bada, ostera, erabilpen berri bat eman ahal zaio.

> Udalak saihesbidean zarata gutxitzeko panelak ipintzeko eskatu dio aldundiari

Zaldupetik Allerira doan pasealekua ondarrutar askoren atseden leku da. Baina saihesbideko zaratak gune horri lasaitasuna kentzen diola eta, udalak aldundiari eskatu dio zarata murrizteko panelak ipintzeko errepidearen ondoan. Horrek, hiru onura edukiko lituzke udalaren ustean: batetik, pasealekua gune lasai eta atseginagoa bihurtuko litzateke; bestetik, Alleriko paduran biodibertsitatea bultzatzen lagunduko luke; eta, azkenik, Ibaiondotik entzuten den zarata gutxituko luke.

KOMUNIKAZIOA

> Interneteko udalaren turismo orria, ingelesez eta frantsesez ere bai

Udaleko komunikazio taldeak interneteko turismo orriaren frantsesezko eta ingelerazko bertsioak ipini ditu sarean, turismo bulegoko langileen laguntzagaz. Horrela, atzerritik udalaren interneteko orrian sartzen denak, herriko monumentu, gune natural eta jai garrantzitsuenak ezagutu ahal izango ditu. Lan hau borondatezkoa izan da, eta ez du gasturik eduki.

BATZORDEAK

BERDINTASUNA **Emakumeen topaleku bat sortzeko jardunaldiak >>>** Berdintasun kontseiluan batzen diren talde eta norbanakoak herrian andrazkoen topaleku bat egin nahian dabiltza. Horregatik, topaketak antolatu zituzten apirilean, beste herri batzutako esperientziak ezagutzeko. Jende asko batu zen jardunaldietan, eta orain proposatutako ideia guztiak antolatzen dabiltza, andrazkoen guneari itxura emateko. Bitartean, Gazteleku gaineko bigarren solairua egokitzen ere badabiltza emakume elkarteak, irailetik aurrera martxan hasteko.

EMAKUMEEN TOPALEKUA
berdintasunaren aldeko barrokarako tresna

Udaberrian, batzordeak loran

INGURUMENA **Kontsumo taldea, martxan >>>** Hasi da beharrean Ondarroako kontsumo taldea. Herriko 10 familia Bedaronako baserri bateko produktu ekologikoak jasotzen hasi dira. Herritar hauek 50 euro ordainduko dituzte hilabetero baserri horri laguntzeko. Trukean, barazki ekologikoz betetako otzara bat jasoko dute astero. Bedaronako baserria ere bisitatu dute dagoeneko, nekazaritza ekologikoa zelan egiten den ikusteko. Kontsumo taldera batu nahi duenak, helbide honetara idatzi behar du: **komunikazioa @ondarroakoudala. net.** Geure inguruko baserriak babestea geure esku dago! Animatu!

INGURUMENA **Ur hilabetea >>>** Maiatzean Ingurumen batzordeak ur hilabetea ospatu zuen. Gaztelekuaren eta Eskilantxarri Ur Kirol Elkartearekin batera, batzordekoek erreka garbitu zuten, eta 600 kilotik gora zabor atera zituzten. Tartean, etxeetatik botatako zabor boltsak, kamioi erruberak, fabriketako piezak... Gainera, Kaiet Bengoetxearen eskutik, herriko ur edangarriaren ibilbidea azaltzeko komikiak argitaratu zituen batzordeak, eta erakusketak ipini Udal Aretoan eta Gaztelekuan. Bestetik, Zubi Zahar, Txomin Agirre eta Institutuo ikasleek Gorozikako ur edangarrien biltegia eta Galtzuarango ur araztegia bisitatu zituzten. Ekimen hauek egiteko, udal batzordeak URA erakundearen dirulaguntza jaso du.

KULTURA **Ikastaro desberdinak antolatu ditu Kultur Batzordeak>>>** Kulturakoak ez dira geldirik egon udaberrian. Besteak beste, bi ikastaro antolatu zituzten Guzur Etxean. Bata, argazkigintzaren ingurukoa (beheko argazkian); bestea, egur tailari buruzkoa. Horretaz gain, udalaren laguntzaz egindako antzerki topaketak ere arrakastatsuak izan ziren. Orain, udari eta udazkenari begira daude batzordekoak. Izan ere, ez dute deskantsurako asti askorik edukiko, daukaten egitarauarekin: andramaixak, erdi aroko jaia…

EKITALDIEN ARGAZKI GEHIAGO IKUSTEKO, sartu **www.ondarroa.eu**-n batzordeen atalean!

ONDARROA PIL-PILEAN
KULTUR EGUTEGIA

UZTAILA

- **21-28,** LIBURU AZOKA
- **23- 24- 25,** KULTUR AGORA
- **26,** KULTUR SUSPERTZAILEEN OMENALDIA
- **27- 28- 29,** SANTIXAK

ABUZTUA

- **4,** BASERRI AZOKA
- **6tik 17ra,** ANDRAMAIXAK
- **11, arratsaldean badian** ESTROPADAK: ONDARROAKO XXVIII. BANDERA
- **25,** EMAKUME SENEGALDARREN JAIA



IRAILA

- **29-30,** ERDI AROKO JAIA

URRIA

- **5**, barikua, 22:00etan «ELKARTASUN GAUA *(...but you'll never walk alone)*» EIN DAIGUN BIDI I. GALA frontoian.
- **11- 12- 13**, MARABILLI FESTIBALA! (Aitzol Aramaio Bengoetxea ondarrutar zinegilearen omenez)

Marabilli FESTIBALA

Musgo bat Aitzol!

ALDEAK BERBETAN

UDALBARRIAK ZABALIK DAGO TALDEEN IRITZIAK JASOTZEKO.
Bidali zeure taldearen idatzia helbide honetara: **komunikazioa@ondarroakoudala.net**

BILDU

Urte bete udalean... eta aurrera goaz!

Urte bat pasa da Ondarroako Udalera ailegatu ginenetik. Arin joan da urtea, abiadura bizian, eta horretan denbora guztian ez gara geldirik egon. Lehenengo egunetik hasi ginen lanean, eta horren emaitzak gero eta argiago ikusten dira.

Topatu genuen udala ez zegoen oso egoera onean: hirigintzan proiektu asko blokeatuta zeuden salaketak zirela eta. Horietako askori irtenbidea topatzea lortu dugu (Zaldupeko pasealekua, Zaldubideko etxeak…).

Gastuak gutxitzen, zerbitzuak hobetzen

Udalera ailegatu ginenean, azpikontrata askorekin egin genuen topo. Diru asko gastatzen zuen udalak berak eman beharreko zerbitzuak azpikontratatzen. Adibidez, asteburuetako zerbitzuetarako edota bajak betetzeko. Horri buelta eman diogu. Udal brigadan eta zaharren egoitzan azpi-kontratazioa kendu, eta udal langileak kontratatu ditugu. Langile horiek aurretik zeuden langileen ekipora sartu ditugu, eta talde hori ondo antolatuta, udal langileekin ematen ari gara lehen azpikontratekin ematen zen zerbitzua. Abantailak nabarmenak dira: zerbitzua eta eskaintza hobetu egin dira, kontratatutako langileen lan egoera hobea da azpikontratatuta zeudenena baino eta, garrantzitsuena, milaka euro aurreztu ditugu azken hilabeteetan. Izan ere, askoz garestiago ateratzen zitzaigun enpresak azpikontratatzea, geure langileei zuzenean ordaintzea baino. Argi erakutsi dugu gauzak ongi egin daitezkeela, gogo pixkat ipinita.

2011ko udal kontuen kitapenak oso argi erakusten du egin dugun lana. Lehen urte honetan hartu diren erabakien ondorioz, udal kontuek buelta eman dute: 1,5 milioi eurotako hasierako defizita edukitzetik, 200.000 eurora murriztu dugu defizit hori.

"Herrixe udaletxea!"

Urteetan udal batzordeak batu gabe egon dira. Guk hasieratik esan genuen udaletxeko ateak zabaldu nahi genituela herritarrentzako, eta horixe egin dugu. Batzordeak ipini ditugu martxan, eta ehunka herritar ari dira euretan parte hartzen. Batzorde horietatik hamaika proiektu ari dira ateratzen, asko gorpuztuta ere badaude dagoeneko. Batzuk aipatzearren: herriko artistak Guzur Etxea sorkuntza gune bihurtzen ari dira. Bertan ikastaroak ematen ere hasi dira jada: dantza, argazkigintza, egur taila... Kontsumo taldea ere martxan ipini dugu, eta herriko 10 familia eskualdeko baserritar baten produktu ekologikoak kontsumitzen daude. Emakumeen txokoa ere itxura hartzen doa Institutu ondoko eraikinean, eta herriko emakume elkarteak espazio hori nolakoa izan behar duen eztabaidatzen ari dira. Harrera etxe bat ere martxan ipini du berdintasun kontseiluak, erasotuak bertan hartzeko. Etorkinentzako euskara eta alfabetatze ikastaroak egin ditugu, eta UEMAn ere sartu gara. Futbol zelaian belar artifiziala ipiniko da, bertan herriko talde gehiago sartzeko. Uztailean herriko umeek multikirola praktikatu dute polikiroldegian. Eta beste gauza asko!

Auzoz auzo, kalez kale

Udalera heldu aurretik proposatu genuen beste asmo bat udala auzo eta auzotarrengana hurbiltzea izan zen. Horretarako, auzo batzarrak eta kale ibilaldiak egin ditugu urte osoan zehar. Horrela, herritarrek euren proposamenak sartu ahal izan dituzte aurrekontuetan, eta udal politikari eta teknikariei euren auzoko arazoak erakutsi ahal izan dizkiete. Eskatutako guztia ezin izan dugu egin, baina auzoetako arazo batzuk konpondu dira dagoeneko (Kaleandin laban ez egitekoa bota da; Alde Zaharrean piboteak kendu dira, eta beste auzo batzuetan kotxeak ez pasatzeko oztopoak ipini dira; kale batzuetako argiteria berrikusi da...). Beste arazo askori irtenbidea bilatzeko proiektuak ere martxan ipini ditugu, eta hurrengo hilabeteetan ikusiko dira horien emaitzak.

Beste bitarteko batzuk ere zabaldu ditugu herritarrek parte hartzeko. Buzoia eta telefonoa martxan ipini ditugu berriro, herritarren kexak jasotzeko. Web orrian ere informazioa berritu dugu, eta batzordeen aktak sartzen ari gara, jendeak udalean zer egiten den jakiteko.

Aurrera goaz

12 hilabete azkar pasatzen dira, eta denbora hori ahalik eta hobetoen aprobetxatzen ahalegindu gara. Emaitzak hor daude, herritarren esku. Hurrengo hiru urteetan ere martxa honetan jarraitu nahi dugu: zerbitzu sozialak mantendu eta hobetzen, herriko taldeak bultzatzen, auzoetako arazoak konpontzen. Baina horretarako zuen laguntza beharrezkoa dugu. Ezinbestekoa da ondarrutarrok batzorde eta batzarretan parte hartzea, zeuen proposamenak eta ikuspegiak zeintzuk diren azaltzeko. Modu kritiko eta eraikitzailean. Are gehiago daukagun egoera ekonomiko txarrean. Denok batera lan egiten badugu, aurrera joango gara!

www.bildu.info/ondarroa

EAJ

Ba da zuzentzeko garaia

Ondarroako Udalak 2011. ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartu du. Likidazioaren emaitza **1.367.721,59 €ko superabita da**. Aurreko hiru urteetan legez, likidazioaren emaitza positiboa izan da.

Baina hau ez da dena. Ondarroako Udalak badauka diru gehiago. Horrela udal ondarean (eta aurrekontutik kanpo) beste **1.130.875,84 € daude**.

Batuketa eginez gero, (1.367.721,59 € + 1.130.875,84 € = 2.498.597,43 €) ikusten dugu Ondarroako Udalak ia 2,5 milioi euro dituela bere eskura.

Beraz, Udaletxean sartzerakoan udal gobernu talde berriak finantza eta ekonomi egoera osasuntsua aurkitu du, eta ondorioz hainbat proiektu bultzatzeko aukera dauka. Gainera aurreko udal taldeak 137 garaje utzi dizkio Ibaiondon, kontsezio bidez eman nahi direnak, eta Udalarentzat sarrera-iturri garrantzitsua izan litezkeenak.

Honaino alde argitsuak. Ikus dezagun jarraian alde ilunak:

Sarrera arruntak %11a jeitsi arren, gastu arruntak %3an gehitu dira. Logikarik gabeko neurria da, eta bizi dugun krisi egoera areagotzen du. Nahiz eta jasotzen ditugun sarrera nagusiak (Udalkutxa) urtero gutxitzen doazen, Udaletxea dena emanda dabil gastatzen. Adibidez, lanarigo arloa aipatuko dugu:

- 3 lanpostu berri sortu dira lantaldean. (Administraria/Alkatearen idazkaria eta kale garbiketako operario bi)
- Artibai Egoitzako lantaldean bi lagun gehiago daude.
- Pertsonal gastua igo da , langile guztiek jasotzen duten hirurtekoen kopurua igo delako.- Kale garbiketako operarioen soldata %10 inguru igo da, inolako lanpostuen baloraziorik egin gabe. Azken erabaki honek atzea ekarriko du, hainbat udal langileek beraien soldaten errebisioa eskatzen hasi direlako.

Bitartean, 2012ko udal aurrekontuaren impugnazioak bere bidea jarraitzen du, eta Euskal Herriko Epaitegi Gorena laster sartuko da auzi honen sakoneko eztabaida erabakitzera. Bide beretik , eta zoritxarrez, Udaletxeak Ibaiondoko garajeen kontsezio inguruan egindako kudeaketak ez du lar arrakastarik izan, eta garajeen hiru laurden hutsik geratu dira. Gogoratu nahi dugu hemen, udal gobernu taldeak garajeen kontsezioak erabili zituela aurrekontua orekatzeko (1,68 milioi euro) eta garajeen hiru laurden hutsik geratuko balira, izugarrizko kolpea emango liokela udak aurrekontuari.

Udal gobernu taldeak, lehen aipatutako diru-kopuruak erabiltzeko ideiarik ez dauka, eta horrek kezkatzen gaitu. Baino gehiago kezkatzen gaitu Udalaren ekonomi –iraunkortasunak. Gure ustez hau ez da bidea, eta bada aldatzeko garaia. Udal gobernu taldeak errealitatea onartu behar du, eta gerrikoa estutzen hasi behar da. Denon onerako hala izan dadila, asko dagoelako jokoan.

Ondarroa, 2012ko uztailaren 23a

PARTE HARTU! **ZURE TALDEAREN IRITZIA HEMEN AGERTZEA NAHI BADUZU, IDATZI!**

komunikazioa @ ondarroakoudala.net

900 314 053 TFNOA. + ALAMEDAKO BUZOIA

2012ko martxotik uztailera bitarteko mezuak

2012/04/19

1. *Etxeko obretako baimena eskatzeko zein telefonota deitxu bir de?*
Telefonoz ezin da eskaririk egin. Hirigintza bulegotik pasatu behar da eskaera idatziz egin behar delako.

2. *Euskal Herritarrok-en garaian etxeetako bajoak etxebizitza bihurtzeko araudia egin zen baina ez zen aprobatu. Galdetzen dut ea horrekin ezer egiteko asmorik badagoen.*
Indarrean dagoen araudiak ezinduentzako etxebizitzak egitea ahalbidetzen du. Plan Orokorrak jasoko du eztabaida hori eta garajeetan etxeak egin ahal izango diren ala ez.

2012/04/25

3. *Txori Errekatik, guk erabiltzen dugun zebrabideak, Txist eta txinoen aurrekoetan kotxeen %90 ez dira geratzen. Nire eskabidea da errepide zati hori munizipala denez, zebrabide horrek baden bezala jartzea.*
Kale ibilaldian atera zen gai hau eta berehala egingo da.

2012/04/26

4. *Guzur Etxeko proiektu Udal Barriaken irakurri dot eta ondo ikusten dot. Kontu de eraikin horretan ez dala igogailurik eta horrek jende bat aukera baik lagaten dabela. Ahalegin bat eskatzen dot denon parte hartzea bermatzeko.*
Azpierabilita egon den eraikin horri, erabilera bat eman nahian sorkuntza gune bat izatea proposatu da. Eraikina bera ez da egokia ezinduentzat ezta igogailu bat jartzeko ere. Horrek kostua izugarri igotzen du. Lehen fase honetan ezinezkoa da igogailua jartzea, 30.000 euroko aurrekontua baitago eraikina egokitzen hasteko. Egitasmoaren bilakaera ikusita, igogailua jartzea aztertuko da.

5. *Bilboko jaxetan Ondarrutik Bilboa orduro autobuse jarti ia posible dan.*
Udalak bere kabuz ezin du zerbitzu hori jarri. Aztertuko da Bizkaibusekin aukerarik badagoen.

6. *Artabiden kontenedorak alkarreandik separata daz, zamarboltsi botateko alde batea jun bir zaz eta bestik botateko bestea. Danak batea eon bir litxakez. Eta zeatxik ez diz beste herri askotan modun lurpin sartzen?*
Kale guztiek ez dute kontenedore guztiak batera egoteko aukerarik eskaintzen. Kontenedoreen inplantazioa arazoa da, beraz, gaia modu sakonagoan aztertu behar da.

2012/05/04

7. *Noizko Txori Errekan zebrabidi? Zeozer pasa bir de, zeozein hil bir de zebrabidi ipintxeko?*
Txori Errekatik pasatzen den errepidea Diputazioarena da. Maiatzean eskaera hau (Txori Errekari eragiten dioten beste batzuekin batera) espreski egin zen Diputazioan eta ez da oraindik erantzunik jaso.

2012/05/12

8. *Desde Kamiñazpi, sobre la vía nueva que va desde las viviendas de protección hasta el edificio de Telefónica. Siempre hay coches aparcados en el paso de cebra o en los soportales, pasan los municipales y no les ponen multa. Quiero saber por qué no les ponen multa, ¿podemos aparcar en cualquier sitio? Quiero saber eso.*
Soportal eta zebrabidean ezin daiteke aparkatu. Udaltzaingoa horren jabe da eta isunak jarriko ditu.

2012/05/15

9. *Nahi dut jakin ea badagoen proiekturik Errenteriara bide gorria egiteko. Baina ez Zaldupe aldetik baizik Kamiñazpitik, horrela buelta osoa egin ahal izateko.*
Momentuz ez dago horretarako proiekturik.

10. *Iñaki Deuna kalean Kamiñaldeko etxeen behe aldean, udalaren lurrak daude, urtean behin mozten da horko bedarra. Uste dut gehiagotan moztu behar dela ze oso luzea egoten da. Terrenoa gurea zenean 3-4 bider mozten genuen.*
Saiatuko gara behin baino gehiagotan mozten.

2012/06/06

11. *Leokadin Bodegoiko bezero bat naz. Hantxe kanpun aterpin dazen maxetan eoti gustaten gazta, bañe ezta bape agradabli tragu hartzen zazela lagunakin Antiguako Ama tabernatik datozen goterak buro gañea ero trago barrure sartzi. Mesedez eskatuko netsuekie hori konpontzi.*
Eraikinaren defektua da. Udalak eraikin horretan bere partea du baina etxebarru osoak erantzun behar dio arazo horri.

2012/06/10

12. *Txakur kakan kontzientziaziñoik ez dabenez gexei funtziona, plan bat proposatzen dot:*
- Hilabete baten, udaltzaingoak txakur jabe guztiai kakak batzeko boltsa bat eskaintzi konstantemente eta paper informatibuk banatzi.
- Kaka asko dan zonetan egurrezko kartel informatibo batzuk egin "kontuz kakadun gunea" edo holako zeozer ipinitxe.
- Herritxarran artin bandera txikixak banatu eta herritxarrak, kaka ikusi bakotxin, bertan banderatxu kolokati fetxiaz.
Hiru neurrixak batea aplikata, kaka jasoten ez dabenak gexaua kortako dizela usten dot. Txakur jauik ez dabe txarto hartuko, ze uste dot eurak dizela on momentun kaltetuenak, herrixan 3-4 kotxino egotine.
PD: Kartelak erderaz be ein, ze nik ezautzetxuazen jasoten ez daben bi bentzat erdaldunak diz.

2012/06/13

13. *Iturribarriko garajitako jabe bat naz. 84 plaza daz, on autobusan markesina atzetik urten bir dou eta beti kotxe bat eoten da aparkata. Hor pibotik jarri edo Udaltzainak multak jarri. Beste eskaera bat, garajeko sarreri oso txarto da, mesedez hirigintzako baten bat datorrela ikustea.*
Markesina atzean piboteak jarriko dira. Garajeko sarrera konponduta dago.

2012/06/18

14. *Guraso bat naz, jakin nahi dot Ondarrutik Unibersidadea posible dan Bizkaibusekin trato bat etxi autobusak zuzenin egoteko. Eskatzen dot Udalak eskaera hoixe etxi.*
Udalak, ale honetako 3. orrialdean azaltzen dugun modura, eskaera hori beste batzuekin batera egina dauka. Momentuz ez dugu erantzunik jaso.

2012/06/19

15. *Bar Iturribarri alboko garajin sarreri desastre da. Kotxi garajea sartzeko leku lehen baño estuaua da. Mesedez beatu zelan dan eta zeoze ein bir bada, ein.*
13. puntu berdina. Konponduta.

2012/06/20

16. *Ia benetan zeoze etxezuen saltzaile anbulante guztikin, ze ixelako inpuestoik paga baik eta arpegi guztiaz dakarre Itsas Aurren euran txiringituk montata kotxe eta furgonetetan, beste lekutan galazoten holako erak saltzeko eta hamen libre dana. Mesedez hartu hartu bir dizen neurrixak.*
Itsas Aurreko martizenetako merkatuko saltzaileei aurten hasi gara kobratzen Portu Zuzendaritzarekin adostutako akordioa medio.

17. *Kristalan kontenedorik husten dizenin loza guzti kristalez jositxe lagaten dabe. Ezin dabe hutsitxuaz batea bixkat garbitxu? Hau baten baño gexauaten ikusirou bañe gexen bat zubi barriko rotondin ondun danin.*
Horretaz arduratzen den enpresa jakinaren gainean dago.

18. *Itsas aurreko umin parki barrixe ipini dabe ta eskertzeku de bañe espero dou garbi mantentzi ze han be kristal pillo bat eta beste gauza indezente batzuk topa ixan douz.*
Garbitzen da.

19. *San Juan Txurrun kotxik aparkaten dizen zatixin kalipota bota zan eta beste guzti ze? Lotsagarri da bai oinezkun aldi, bai kotxiaz pasateku. Han baño zulo gexa iñun ezta! Ta horretxen beste Madalena kaliai buruz. Txakurran kakana ya "sin comentarios".*
Aztertuko da.

2012/06/21

20. *Artabidetik deitzen dot. Terraza gorrire txakurrakin juten da jenti. Lehen konpondu aurretik kartela euan, txakurrak ezin zile sartu esaten bana. Ontxe be kartela ipintxi eskatzen dot, ze azkanin kaka tokixe bihurtzen da.*
Kartela jarriko da.

2012/07/01

21. *Argixaz ze pasaten dan jakitxeko deitzen dot. Ze egueldi onaz be argixe jun etxen da. Iberdrolaz berba ein biko da horren zergatixe jakitxeko. Udalak Iberdrolaz berba etxi eskatzen dot.*
Arazoak daudenean Udala berehala jartzen da Iberdrolarekin kontaktuan. Horren zergatia ez da bakarra eta zehatza.

2012/07/09

22. *Gustatuko litzaidake jakitea zein enpresa den Ondarroan ur kontagailuen irakurketa egiten duena.*
Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa.

2012/07/10

23. *Telebisiñoin ikusi dot talde ekologistako bat, txalupa batek bota daben gasoila dala ta hondartzako ure zikiñe dala esaten. Herri guztiko paetak pintxata daz eta hori ez ta zikintzi? Herrixe garbixe nahi badou, ez dou zikinddu bir. Ure zainddu bir dan modun, paetak be zainddu ein bir diz.*
Udalak hilean behin herriko paretak garbitzeko erabakia hartua du. Gasoil isurketaren harira, Udala Portuko Agintaritzarekin egon da eta gaia hurbiletik jarraitzeko asmoa du.

DOHAINIK!

TELEFONO BEREZIA

Zuen kritikak, kexak, ideiak
zein proposamenak jasotzeko,
telefono zenbaki berezia daukazue. DEITU!

900 314 053

24 ordutan martxan zure mezua lagateko!

ALAMEDAKO BUZOIA

Zuen kritikak, kexak, ideiak... zabalagoan kontatu nahi badiguzue, IDATZI GUTUNA eta bota BUZOI URDINEAN!

INGURUMENA

>Traste zaharrak ateratzeko, deitu: 94 613 82 45

Etxeetako traste zaharrak atera aurretik telefono honetara deitu behar da: 94 613 82 45. Bertan, trasteak jasotzeaz arduratzen den enpresak noiz eta nora atera esango dizuete. Telefono horretara deitu gabe ateratzen diren trasteak udalak jaso behar izaten ditu bere aldetik, eta horrek gastu handia suposatzen dio. Denon onerako, trasteak atera aurretik, deitu!

> Plaka fotoboltaikoak, Zeledoniotik Kiroldegira

Zeledonio eraikinak plaka fotoboltaiko bat zeukan teilatuan. Baina eraikina egoera txarrean dagoenez, haren mantenua egitea zaila zen. Horregatik, udalak Zeledonion zegoen plaka fotoboltaikoa kendu egin du, eta kiroldegiko teilatuan ipiniko du. Izan be, udala kiroldegiko teilatu zati bat konpontzen dabil, egoera oso txarrean zegoelako. Obra horiek aprobetxatuta egingo da aldaketa. Zeledonion sortzen zen energia saldu egiten zen, baina orain kiroldegiko sistemara konektatuko da plaka, eta sortuko duen energia eraikinean bertan kontsumituko da.

ANDRAMAIXAK

Andoni Garciaren kartela, irabazle

Ondarroako Andra Mari jaiek badaukate kartela: Andoni Garcia Alkortaren *Marea biziak*. 11 lanen artean aukeratu dute jai batzordeko zortzi kideek kartel irabazlea. Jaietako eskuprogramako azalean agertuko da Garciaren lana.

Agenda: www.ondarroa.eu/eu-es/Gertakariak/

Herriko ikastetxeak, kontsumo arduratsua lantzen

> Urtean zehar egindako lana alkate eta zinegotzien aurrean aurkeztu zuten herriko ikasleek, udal foroan

>>Planetako errekurtsoak agortzen ari garela eta, euren bizimodua aldatzeko konpromisoak hartu dituzte ikasleek

Bi urtean behin, eskualdeko ikastetxeek ingurumenarekin lotura daukan gai bat aukeratzen dute, agenda 21eko klase orduetan lantzeko. Aurten, kontsumo arduratsua aztertu dute, eta datorren ikasturtean ere gai horrekin jarraituko dute. Orain arte egindakoa erakusteko, herriko ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak pleno aretoan batu ziren alkateagaz eta ingurumen eta hezkuntza zinegotziekin.

Ikasleek azaldu zuten munduko biztanle guztiek euskal herritarrok beste kontsumituko balute, 2 planeta eta erdi beharko genituzkeela errekurtsoak lortzeko. Baina planeta bakarra daukagunez, horrek esan nahi du batzuk okerrago bizi direla, gu hobeto bizitzeko. Denonak diren baliabideak geuk agortzen ditugula, eta etorkizuneko belaunaldiei gero eta zabor gehiago eta gero eta baliabide gutxiago ari garela lagatzen azaldu zuten.

Irtenbideak bilatzeko konpromisoak

Egoera honi buelta emateko, ikasleek euren bizitzeko moduak aldatzeko konpromisoa hartu dute. Horretarako, eguneroko ohitura batzuk aldatzea proposatu zuten udal foroan: bertoko sasoiko produktuak kontsumitzea, eskolako materialen erabilpen egokia egitea eta zaborra dagokion lekuan botatzea, adibidez.

Herrira begira ere, proposamenak egin zituzten gazteek: ontziratu gabeko bertoko produktuak saltzen diren guneak bultzatzea. Adibidez, Berdura Plaza. Baita argiteria publikoaren kontsumoa gutxitzea, edota merkataritzan behin eta berriro erabili ahal izateko boltsak bultzatzea.

Alkate eta zinegotziek, esandakoak kontuan hartuko zituztela jakin arazi zieten ikasleei, eta kontsumo arduratsuaren bidean udala ematen ari den pausoak aipatu zituzten: barazki ekologikoen kontsumo taldea martxan ipintzea, udaleko eraikinetan berziklatzea bultzatzea eta kaleko argiterian gutxiago gastatzeko bitartekoak ipintzea, besteak beste.

Ondarrutar gazteak udal pleno aretoan, irakasleekin, alkatearekin eta zinegotziekin.

UDAL TELEFONOAK

www.ondarroa.eu

UDALETXEA
MUSIKA PLAZA z/g
1.pisuan:

Idazkaritza	94 6833674
Alkatetza	94 6833676
Bulego Teknikoa	94 6833677
Kultura eta Kirol Saila	94 6833669
Euskara Zerbitzua	94 6833668
Berdintasun Saila	94 6833670

PLAZA AZPIKO BULEGOAK

Erregistro orokorra	94 6833672
Udaltzaingoa	94 6833673
Gizarte Zerbitzuak	94 6833671
Kontuhartzailetza	94 6833666
Kontsumo Bulegoa	94 6830498
Bake Epaitegia	94 6833679

BESTE UDAL ZERBITZUAK

Kiroldegia	94 613 42 09
Artibai Egoitza	94 683 32 31
Musika Eskola	94 613 40 63
Liburutegia	94 683 33 43
Turismo Bulegoa	94 683 19 51
HHI - EPA	94 683 27 55

TELEFONO INTERESGARRIAK

Osasun Etxea	94 603 79 99
Gurutze Gorria	94 683 19 29
SOS Larrialdiak	112
Suhiltzaileak	94 616 89 92
Itsas Sanitatea	94 683 10 00
Alkoholiko Anonimoak Elkartea	94 683 20 86
Emakunde	945 13 26 13
Bizkaibusa	902 222 265
Euskotrena	902 543 210
PESA	902 101 210
Taxi-Geltokia	94 683 26 86
Kofradia	94 683 19 51
Txalupen sarrera	94 683 02 23
Enplegu Bulegoa	94 683 07 00
Butanoa	94 616 62 54
Iberdrola	94 415 14 11
Telefonika-Aberiak	1002
Ura- Partzuergoa	94 487 31 87
Postetxea	94 683 15 01
Parrokia	94 683 01 98
Notaritza	94 683 00 83
Arraun Egoitza	94 683 33 35
Zaldupe Zelaia	94 683 10 53
KZgunea	94 683 33 45
Lea-Artibai Amankomunazgoa	94 616 90 68
Lea Artibai Garapen Agentzia	94 683 34 95

Gogoratu!

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK EZ

EZ PASA!